

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2022-03-29(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

5.- 2022 URTERAKO TABERNEN ORDUTEGIA ONARTZEA.

Xedea

2022 urterako tabernen ordutegia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022 urtean taberneak bete behar daben ordutegia onartea beharrezkoa da.

Bigarrena: 2022ko martxoaren 8an Urigintza Saileko AOTak txostena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren inguruko 10/2015 Legea eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko 17/2019 Erregelamenduan (2019ko uztailaren 23ko 119/2019 Dekretu bidez aldatuta) xedatutakoa kontutan izanda, 2022 urterako tabernen egutegi eta ordutegi bat onartu behar da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Ostalaritza establezimientuzako ixteko ordutegi eta egutegi hau onartzea:

ORDUTEGI ARRUNTA:

Establezimendu moetea	Asteguna Neguan	Bariku, zapatu eta jai bezperak. Neguan	Asteguna Udan	Bariku, zapatu eta jai bezperak. Udan
Lehenengo taldea	23:00	00:30	23:30	01:00



Bigarren taldea	01:00	02:30	01:30	03:00
Hirugarren taldea	02:30	04:00	03:00	04:30
Laugarren taldea	04:30	06:00	05:00	06:30

- Negualdia: urriaren 1etik, maiatzaren 31ra.
- Udaldia: ekainaren 1etik, irailaren 30era.
- Ordutegi hau, jentea kaleratzeko denporea kanpo itzita ulertu behar da (30 minutu kaleratzeko).
- 3. eta 4. taldeen kasuan, 3 ordu pasatu beharko dira ixten dan unetik, barriro zabaldu ahal izateko.

ORDUTEGI BEREZIA: Ordutegi arrunta baino ordu bat gehiago.

ORDUTEGI BEREZIAREN EGUTEGIA:

Ordutegi berezia egun honeetarako onartzen da:

Errege bezperea, Aratuste martitzena, Aratuste zapatua, Arrain Azokako zapatua, San Juan bezperea, San Juan eguna, Madalen bezpera, Madalen eguna, Roke Deuna eguna, Gabon eguna eta Gabon zahar eguna.

Bermeoko jaietako ordutegia zehazteke geratzen da. Jaietan inplikaturako dagozan agente desberdinekin egon ondoren zehaztuko da ordutegi berezi hori, beti be10/2015 Legeak eta 17/2019 Erregelamenduak xedatutakoarekin bat.

BIGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000947B200R5I9I9P7E7Q8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 29/03/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 29/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/03/2022
15:02:19

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0068
Data: 08/03/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000947B200R5I9I9P7E7Q8

